

Paperfiliaz

Itzea Urkizu
Arsuaga

Liburuaren Eguna pasatu berri den honetan, aitor dezadan paperfilia puntu bat badudala. Liburuen barrunbeak usaintzen ditudala, eta gozagarriagoa zaidala orrien ukimena eta haiek tolesteko eta haietan idazteko aukera, gailu elektronikoen praktikotasuna baino. Beharbada horregatik, denborari partida irabazten dioten liburuz josita ditut apalategiak.

Esango nuke, ez dela norbere bakardadean plazera sentitzeko itxaron-zerrenda bat baino. Autoreen teoriekin haserretu edo maitemintzekoa, edo fikzio zenbaitekin eta gure bizitzarekin hibrido bat egin nahi izatekoa. Izan ere, nor ez da maitemindu literatur pertsonaia batekin?

Gero konturatzen zara, paperaz harago, fikzioak bere-berea duela limurtze gaitasun hori, eta zeure burua ikusten duzu, “Game of Thrones” telesailaren asteroko dosiaren zain, atezuan; kontraesanen lapiko erraldoitik zanga-zanga edanez. Zeren bai, akaso gaindosi mediatikoa jasaten ari gara ditzosozko tronu demaren dantzarekin. Baina, tira, “Game of Thrones”-en korrontera batzea bezain *mainstream* izan daiteke telesaila ikusten ez duzula publikoki azaltzea. Iritzia eman beharrak bizi gaitu aspaldian.

Ni ere haserretu nintzen lehendabiziko denboraldian, hasierako haria gizonezko pertsonaiek bakarrik mugitzen

zutela jabetu nintzenean, eta gorputz biluziak emakumeenak bakarrik zirela ikusi nuenean. Gerora, ordean, pertsonaien rol banaketa garatu dela ikusi dut: garaipen gose, buru hotz eta autoritate handiena dutenak Cersei, Sansa eta Daenerys izango dira beharbada, eta Jon Snowk xalotasunetik bizi du bere lehia, ingurukoak zaintzeko irabazi nahi du. Bai, Jon Snowrekin ere maitemindu nintzen.

Iritzia eman beharrak bizi gaitu eta, hain justu, horretarako prestatutako txokoa da honakoa. Gaurko hausnartze eta biharko erabakitzeek, baina, ez naramate fikzioa aipatzera beste inora. Hori dute tronuek, demek, paperek eta filiek. •

Desobedientzia garaile

Koldo Sagasti

Guztion ahotan dabil kontua. Hautetsontziekiko lau urtean behineko hitzordurako hogeita lau ordu eskas falta direla, hauteskunde mahiak osatzeko larri dabilta Araban. Izan ere, Espainiako Kongresu eta Senaturako bozketak Prudentzio Deunaren egunean bertan izango dira, eta deialdiak talka egiten du, ez saildu txizatiarekiko balizko debozioarekin, baizik eta herrialdean aspalditik errota-tako tradizio sakratu batekin: apirilaren 28ko jaieguna maiatzaren 1ekoarekin kateatu eta oporralditxoa egitekoa. Gauzak horrela, probintziako biztanleriaren

zati handi batek desobedientzia zibileko ariketa masibo eta espontaneo bati heldu dio, zaindariaren zubiarekiko zitari ez huts egitearren.

Milaka hiritar ezkutuan ibili dira, hauteskunde mahia osatzeko jakinarazpenak banatzen dituen funtzionarioak txirrina jotakoan, atea ez irekitzeko. Beste askok hamaika trikimailu asmatu dituzte, dela gaixotasun agiri bat dela lehen-gusu baten bataioa, betekizun demokratikotik salbuetsita geratzeko.

Hainbestearinokoa izan da boto emate prozesuarekiko jarrera intsumiso orokortua, udaltzainak ezorduetan eta

pizza banatzailez mozorrotuta ere ibili omen direla azken egunera arte atez ate zitazioak banatzen. Halaxe kontatzen zen, behintzat, hiriburuko solastokietan; prentsa lokaletik hasita eskolako gurasoen Whatsapp taldeetara.

Behingoagatik gehiengo zabala bat etorri da hauteskunde deialdi batean... demokraziaren festarako gonbidapena errefusatu. Bozen emaitza edozein delarik ere, azken deialdi honek agerian utzi duena zera da: inork gutxik ematen dio zilegitasuna partitokraziako sufragio sistemari, eta, norbaitek irabaztekoan, desobedientzia atera da garaile. •